Noaua!!

HAMABOSTEKARIA

1998ko abenduaren 23a III. urtea

Zenbakia



Jostailu ugari Lojako haurrek noiz hartuko zain

Gazi Gozo Geza

Txerrimunik ordainetan

Zorionak **Aitziber**! Abenduaren 31n 14 urte egingo dituzula ez dugu ahaztu. Segi orain bezain jator eta langile. Muxu haundi bat eta egun ona pasa dezazula. Etxekoak.

Urte askotan **Aroa Bengoetxea**! Abenduaren 22an 12 urte beteko dituzu. Egun ona pasa dezazula opa dizugu eta muxu pila bat. Gurasoak.



Hau ez da txantxetakoa! Abenduaren 28an 5 urte egingo dituzu **Onintze**. Zorionak etxekoen partez eta muxu haundi-haundi bat eman nahi dizugu.

Zorionak **Lorena**! Abenduaren 26an 5 urte beteko dituzu. Zorionak eta muxu haundi bat ama, aita eta Xabierren partez.

Zorionak aitona **Paulo**! Gabon eguna iritsi zaigu aurten ere eta horrekin batera zure urtebetetzea. Guretzat aita eta aitona bikaina zara eta beti bezain alai jarrai dezazula. Etxekoak.

Libratuko zinelakoan e! Nahiz eta berandu xamar gabiltzan, hartu **Josu Portu** etxekoen zorionik beroenak abenduaren 6ko partez.

Zorionak **Esther Ibarguren**! Abenduaren 28an zuretzat egun berezia izango da. Hementxe edukiko gaituzu tartaren zain, txanpain eta guzti, e! Muxuak etxekoen partez.

20 urtera iritsi zara **Eider**. Aurrean "patito" hori jarri ezkero... azkar pasatzen dira urteak. Zorionak abenduaren 29ko partez.

Urte askotan**Arantxa eta Izaro**. Ondo pasa zuen egunean, abenduaren 30ean eta urtarrilaren 8an. Muxu haundi bana etxekoen partez.

Zorionak **Xabier Aranburu "Xomorro"**. Abenduaren 27an ospatu beharrekoaz ez dira ahaztu aginagarrak. Pasa den abenduaren 13an "Gara egingo dugu" festan izandako sokatiraren ondoren ateratako argazkia da hau. Aginagarrak zorionak bidali nahi dizkizute Herrera de la Manchara. Animo! Ea laister honelako festaren batean elkartzen garen denok.

Norbaitek familiak, lagunak, aldamenekoak, ezkondu berriak... zoriondu nahi baditu hemen du dohainik zoriontzeko aukera. Argazki bat eta testuan jarri nahi dena besterik ez duzu behar.

Hurrengo alea: urtarrilaren 15a
Agurrak ekartzeko epea: urtarrilaren 8a

Jaiotzak

Xuban Balerdi Goitia
(1998-12-04)
Kalezar

Xabat Beloki Segurola
(1998-12-13)
Atxegalde

Bai, esan?

- Udala
37 19 51
- Udaltzaingoa
36 11 12
- Anbulategia
36 20 13
- Udarregi ikastola
36 12 16
- Agerialde ikastetxea
36 38 95
- Oiardo kiroldegia
37 24 98
- Zumarte musika eskola
37 15 94
- Etumeta euskaltegia
37 20 01

Zer irizten?

Usurbilgo Euskararen Aholku Batzarra

Xabier Pikabea

Euskara zinegotzia eta UEMAko zuzendaritzakoa

Hainbat eta hainbat urtetan zapaldua egon den hizkuntza bat altxatzea ez da gauerdiko ahuntzaren eztula: ez da batere txantxetakoa; horretan guztiok daukagu zerikusia eta zeregina gutxi batzuen esku utzi gabe. Guztiok, hortaz, apurtxo bat jarri beharra, baldin eta, errekuperazio abiadura dezente batean ikusi nahi badugu, behintzat.

Horregatixe, udalak- euskara-batzordearen eraginez Euskararen Aholku Batzarra sortu zuen. Euskara batzordeko lau zinegotziok, bakarrik, ezer gutxi genezakeelakoan, euskararen inguruan lanean ari zirenetara jo genuen, laguntza eske, gure mugak argi eta garbi azalduz: herriko ikastetxe eta kultur erakundeetara jo genuen. Hauengandiko erantzuna ezin hobea izan zen, eta halatan, sortu ere sortu zen aipatu Euskararen Aholku Batzarra.

Batzarrak irekiak dira. Egun, bataz beste, 15 kide biltzen dira hileroko batzarraldian, Udaleko euskara-batzordeburuaren zuzendaritzapean. Hiru urte baino gehiago da sortu zela, eta ordutik eman du emaitza ederrik: aldizkari bat sortzen bultzatu, merkataritza kanpaina, euskal txokoak sortu, eta abar luze luzea.

Sekulako dinamika sortu du, eta horretara, herriko hainbat erakunde sozialek euskara-arazoetan parte hartzea lortu da. Beraz, ez da gutxi!

Noaua!! HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea
Noaua! Kultur Elkartea
Kale Nagusia, 37
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail:noaua@topagunea.jalgi.com
Web orria:
http: //www.jalgi.com.topagunea/noaua/

Zuzendaria
Olatz Altuna

Kazetariak
Ainhoa Azpiroz, Idoia Torregarai, Josu Aranberri, Garikoitz Udabe

Kolaboratzaileak
Pedro Mari Matxain, Ines Kamino, Leire Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal, ,Alazne Begiristain, Zaloa Arnaiz, Maribi Arrospide, Agurtzane Solabarrieta, Joseba Pellejero, Ainara Uribe, Eider Jauregi, Olatz Leoz, Mikel Bengoetxea, Agustin Esnaola, Izaskun Zubiria, Olatz Goenaga, Izaro Aizpurua, Joxe Loidi, Begoña Arriaga, Urko Manterola eta Joxe Torregaray.

Administrazioa
Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea eta Nerea Kamino.

Erredakzio Kontseilua:
Olatz Altuna, Garikoitz Udabe, Jose Jabier Furundarena, Iñigo Azpiroz, Idoia Torregarai, Josu Aranberri, Ainhoa Azpiroz.

Maketazioa eta diseinua
Susana Martin, Aitziber Elortza, Olatz Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

Dokumentazioa
Idoia Agirre eta Aintzane Aizpurua

Informatika
Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketa
Mertxe Jimenez, Xabier Kamino, Txelo Vidal eta Iker Muguruza

Elektrikaria
Iñaki Salsamendi

Sukaldaria
Joxe Mari Sarasola

Tirada: 2.300 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza

Noaua! hamabostekariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Noaua! Kultur Elkarteko jendaurreko ordutegia

16.30-18.30

astegunetan

Usurbilgo Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria

Euskal presoak Euskal Herrira!

ika-mika

AKATSAK ZUZENDUZ

56. alean, azkenengoan, hanka sartu genuen Herriko taldeak atalean. *"Haur erdaldunak euskaldunduz"* izenburutzat zuen erreportaian Euskal txokoei buruz hitz egin genuen. Testuan **Leire Errasti** begiraleetako bat izango balitz bezala agertzen da eta ez da horrela. Bere ahizpa Maider da Euskal txokoetako begiralea. Beraz Leire Errasti jartzen duen lekuan **Maider Errasti** jarri beharko luke.

Bestalde, 55. alean **Maria Dolores Beldarraini** elkarrizketa egin genion Berriketan sailean. Azkenengo galderaren erantzunean San Estebango festei buruz zera esan zuen Maria Doloresek: *"Gero Zabalekoek esan zuten tradizioa mantendu behar zela eta San Estebanen egiten hasi ginen"*. Santuenean hori zabaldu bazen ere, berez festak San Estebanen egitea festetako komisioak erabaki omen zuen. Hori argitu nahi zuen **Maria Dolores Beldarrainek**. .

Gabonak iritsi dira eta ***Noaua!*** aldizkariak opor txiki batzuk hartuko ditu. Ale hau behar baino lehenago iritsiko zitzaizun eskuetara, hurrengoa jasotzeko berriz, urtarrilaren 15a arte itxaron beharko duzu. Eguberrion, urteberrion, gutxi jan, gutxi edan eta gutxi gastau!

Irakurle, kexarik baduzu, herritarrei zerbait esan nahi badiezu tarte hau da zuretzat aproposa. Atal honetako gutunak ezizenez sinatu daitezkeen arrez Noaua!k beti jakin behar du nork idatzi duen. Gutunak Noaua!ra bidali edo bertako buzoian utzi. Eskutitzak orrialde erdikoak izan behar dute, 1200 karaktere ingurukoak.

txirrikitutik

Sokatira txapelketa irabazi ote dute? Hala dirudi ezta? Baita zera ere, "Gazteak" taldeak "Goitarrei" irabazi ondorengo argazkia duzue hau. Lehenengo tiraldia erraz galdu ondoren ez zuten uste bigarrena irabaziko zutenik. Gazte hauen aurpegietara begiratu besterik ez dago!

ALDATZA
Opari aukera zabala
Urte berri on!
Atxegalde, 10 Tel. 36 65 42

Eguberri eta urteberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
GURASO ESKOLA
USURBIL

BAYMUE
Etxetresna elektrikoak
Bainugelak, sukaldeko altzariak eta tresnak eta opariak
Eguberri eta urte berri on!
Zubiaurrenea, 3 ☎ 943 36 57 42

TXARO ARTZE ILEAPAINDEGIA
Buru-azalaren zainketa
Ile-apainketa
Eguberri eta urte berri on!
Etxebeste, 3 Tel. 943 37 16 85

MAHUKA
Gizon eta emakumezkoen modako arropa guztia hemen aurkituko duzu
Etxebeste kalea,3 - Tlf. 943 36 11 06

PORTULARRUME
Zorionak eta urte berri on!
ITURGINDEGIA
BAINUKO ALTZARIAK
Kale nagusia, 2-2-2D
Tlf. Denda 943 36 46 37
Etxea 36 52 99

Berriketan

Manuel Aizpurua Lizarreta

Urdaiagatarra jaiotzez, Aginagarra izatez. Oria ibaiaren alde batean jaio zen, Liputzabalgo Etxeberri baserrian (Izoztegi). 13 urterekin, ordea, beste aldera joan ziren bizitzera, Aginagako Intxaurretara hain zuzen ere. Orain ere bertan bizi da.

Oria ibaiaren bestaldean jaio zineten, baina bidea beste aldean zegoen. Nola pasatzen zineten alde batetik bestera?

Alaz zeharkatzen genuen erriora. Nire aita zanak Michelinen lan egiten zuen. 17 urtetan, bizikleta bizkarrean hartu, eskailerak jeitsi, alan urak pasa eta lanera bizikletan joaten zen. Etortzeko berdin.

Eta zuek ere bai?

Horixe baietz. Aginagara joaten ginen eskolara. Bi ala genituen. Bat aitak erabiltzen zuen lanera joateko, bestean gu pasatzen ginen amarekin. Izebaren etxean bazkaltzen genuen, amak ogia erostera joaterakoan bazkaria eramaten baitzuenhara. Arratsaldean Aginagara berriz, eta gero Mapil zaharretik pasatzen gintuen beste izeba batek oinez etxera joateko.

Eta eguraldi txarra edo ibaia gaiztoa zegoenean?

Neguan euri asko egiten zuenean eta uholdeekin ezin izaten zen pasa. Aurreko batean lehen bizi ginen Intxaurretako etxe zaharra garbitzen hasi zen anaia eta nire eskolako kartila aurkitu zuen. Gure alabak adar jotzen hasi zitzaizkidan: *"zenbat falta egiten zenituen aita!"*. Neguan izugarri, pasatzeko giro txarra zegoenean ez baikinen joaten.

Txikitan alan ibilia, baina gero itsasora salto egin zenuen ezta?

17 urterekin itsasora joan nintzen. 8 urte egin nituen itsasoan lanean eta soldaduskako bi urteak ere bai. Itsasoko kartila zutenak "marinara" joaten ziren eta ni ere hara joan nintzen 19 urterekin. Ferrolera joateko hiru egun pasa genituen trenean.

Francorekin ere ibili omen zinen?

Bandera juratu egin ondoren, eta marinela izanda, Francoren Azor itsasontzian sartu ninduten eta han ibili nintzen yate famatu hartan atuna eta bestelako arrainen arrantzan.

Zu arrantzalea zinenean diru asko irabazten al zen itsasoan?

Nik nire aitak Michelinen irabazten zuena baino gehiago irabazten nuen itsasoan. Lehen aldiz itsasuntzi estreinatu berrian itsasoratu nintzen Orion martxoan. Antxoatara joan, eta astebeteko jornalean 3700 pezeta ekarri nituen etxera. Gure aita zanak hileko jornala 1800 pezeta zuen Michelinen.

Gero, itsasoa utzi eta Michelinen hasi zinen lanean.

Gurasoei ez zitzaien itsasoa gustatzen, eta Intxaurretan etxe berria egiten hasi ginenean hura zaintzeko norbait behar eta utzi egin nuen lana. Ondoren Michelinen izena eman nuen eta ordutik han nabil lanean.

Hala ere arrantza kontua ez duzu erabat baztertu ezta?

Ez, anguletan ibiltzen gara afizio modura. Bart gauean (abenduak 14), 3 angula harrapatu ditugu. 8-10 buelta egin ditut aurten eta 300-400 ale ditut haztegian bizi-bizirik.

Garai batean berriz...

Kaka bezala harrapatzen genituen. Ezkonberritan, duela 25 urte, anguletara joan behar nuela esan nion andreari; berak ez zekien ondo oraindik zer zen hura eta txundituta gelditu zen. Goizean ni bertso kantari 36 kilo angularekin ala kargatuta etxera eta andrea leihoan erdi negarrez begira, ez baitzekien nola izaten zen anguletako kontua. Zerbait gertatu zitzaidala uste zuen. Garai batean angula asko izaten zen.

Josu Aranberri

PATRI
JATETXEA
Eguneko bazkariak eta afariak
Zorionak eta eguberri on!
Nagusia,6
943 36 27 25

URTINEA
LORATEGIA
Gabon zoriontsuak eta urte berri on!
Lore eta lore landareak
San Esteban Tlf. 36 22 55

ORBELDI
MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009
GENERALI
Aseguru Konpainia
Eguberri eta urte berri on!
Aritzeta, 1 Tlf: (943) 943 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

TXOKOALDE

Olatz Goenaga

Telebista pribatuak ere ikusten dira

Txokoaldekoak orain arte behin ere ez dugu telebista pribatuak ikusteko modurik izan gure etxeetan. Auzotar batzuek telebista kate hauek ikustea lortu zuten, baina antena bereziak jarriz.

Urdaiagako repetidorea jarri zutenean, telebista pribatuak ikusi ahal izango genituen zurrumurrua zabaldu zen. Gero, berriz, Aginagakoa jarri arte ez genuela telebista pribaturik ikusteko modurik izango esan ziguten. Zurrumurruak gora eta behera zebiltzan bitartean, Txokoaldetarrok telebista pribatuak ezin ikusi jarraitzen genuen.

Baina, azkenean, iritsi da eguna. Egun batetik bestera Aginaga aldera begiratu eta repetidorea jarria zegoela konturatu ginen. Ondoren, bertan jendea lanean ere ikusi genuen. Azkenean, nola edo hala lortu dugu gure etxeetan telebista pribatuak ikustea.

Orain arte Euskal Telebistako bi kateak eta Espainiarreko biak bakarrik ikus genitzakeen. Orain beste guztiak ikusteko aukera ere badugu. Bazen garaia.

Beste gai batekin jarraituz, Goiko Erretako bidean argiak jarri dituztela ja aipatu beharra dago. Orain, aparkaleku berria argiztatzea besterik ez da falta.

KALEBERRI

Eneko Harreguy

Datorren mendeko akordioa

Berria naiz; "Kalejiran" ataleko kronika idaztea egokitu zait. Lehenengo gauza zera izan zen, eta zeri buruz idatziko dut?, zenbateko luzera behar du izan idazkiak...? Hala ere atsegin eta ilusio handiz helduko diot lanari.

Egun, zeinnahi lekutan entzuten dugu Bai Euskarari! Akordioa burutzen ari direla. Tira diezaiogun, bada, hari berari.

Jaialdi hau dela bide, Usurbilen zenbait ekitaldi antolatu ziren Santo Tomas astebururako, hala nola euskararen aldeko maratoia; Andatza mendizale elkarteak antolatuta Kukuarrira ibilaldia; urteko irteeren diapositiba emanaldia; Bai Euskarari abestiaren aurkezpena Zumarte musika eskola, Irriu Abesbatza eta ikastolako haurren eskutik; Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak Oiardo kiroldegian; Imuntzo eta Beloki trikitilariak frontoian eta abar luze bat.

Bestalde, UNESCO-k dionez, hamarkada batzuren buruan planetan dauden lau mila hizkuntzetatik gehienak desagertzeko arriskuan daude eta euskarak azken hamarkadan berebiziko aurrerakada egin badu ere, bide luzea dago oraindik jorratzeko. Honela, euskararekin halakorik gerta ez dakigun, antolatu diren ekitaldietan laguntzea zein garrantzitsua den azpimarratuko nuke.

ATXEGALDE

Amagoia Mugika

Santo Tomas ospatu zuten Udarregin

Pasa den ostiralean, benetan usain ederra zabaldu zen auzoan, txistorra usaina, hain zuzen ere. Udarregi ikastolako haurrek, aurtengoz behintzat, ikastolan egin beharrekoak amaitu zituzten eta hau, izugarrizko txistorrada eginez ospatu zuten.

Gabonei ongietorria emateko, azken urteetako ohiturari segituz, goizean goizetik herriko kaleak alaitu zituzten gabon kantekin eta ondoren, txistorra jan zuten.

Txistorra auzoko Alkorta harategikoa zen. Goizean goizetik jarri zuen Maria Luisak txistorra egosten. 25cm inguruko 350 txistorra zati izan ziren guztira. Nire modura auzoko ugari joan zen harategira inbidiak jota. Bat-batean denok izan baikenuen txistorra jateko gutizia.

Udarregin, seguru batzuek besteek baino gustorago jan zutela ogitartekoa. Lehen ebaluaketako notek bati baino gehiagori emango baitzion tripako minik, edo txistorra gehiegi jan ote zuen?

KALEZAR

Urko Manterola

San Juan sua egiten hasi direla dirudi

Oraindik abendua izanda, ez luke inor askok esperoko San Juan surako pila egiten hasita egotea. Lehen gaztetxea zegoen lekuan, atze aldean egiten hasi direla dirudi. Izan ere, egur, arba eta abarrez egindako izugarrizko pila dago bertan.

Dirudienez, udaletxeko langileek, udazkenean kimatutako zuhaitzen arbak eta behar ez zituztenak pilatu dituzte. Honela jarraitzen badute ekainean izango da zer errea.

San Juan sua aipatu dudanez, tarte hau aprobetxatu nahi nuke festetako bilerak egiten hasi garela aipatzeko.

Urtero bezala, ostiraletan gaueko 10etan izaten dira Harane futbol zelaiko lokalean eta nahi duenak lasai agertzea dauka. Sua behintzat ederra izango dugula dirudi. Orain, guztion partehartzea bakarrik falta da.

Beste kontu bati eutsiz, lehengo batean eskaileretan baranda falta zela aipatu nuen.

Bada, esan ja jarri dutela eta baranda ederra dugula eskaileretan goitik behera, edo behetik gora, nahiago duzuen bezala.

Kale

SANTUENEA

Agurtzane Solaberrieta

Badatoz txotx egunak

Badatoz, bai, askok gogotsu itxoiten ari ginen egunak. Badatoz, bai, sagardoa alkate izango den hiruzpalau hilabeteak. Badatoz bakailau tortila, bakailau eta txuleta paregabeaz gozatzeko egunak. Badatoz, beraz, sagardoa kupeletik edateko egunak. Horren lekuko dugu Aialdenea sagardotegia. Ez dira dieta mantentzeko egun aproposenak, baina tira! Urtean behin horrelako urte sasoiek ere ez diote kalte handirik egiten gorputzari.

Ofizialki, "San Sebastian" bezperatik Aste Santura arte da sagardotegi sasoia, baina aurten Santueneko sagardotegia aurreratu egin da. Abenduaren 12an sagardotegi hontan barrikotea ospatu zen denboraldiari hasiera emanez. Jende asko hurreratu zen bertara sagardo berria probatzeko asmotan.

50-60 pertsona inguruk izan zuten sagardo berriaz gozatzeko aukera, gehintsuenak usurbildarrak ziren, nahiz eta inguruko herrietako jendea ere bazegoen.

Sagardotegi hau, beste sagardotegiekin alderatuz nahiko txikia izan arren, badoa bere txikitasunean haundi bihurtzen. Hantxe ibili dira urtean zehar lokal txikitxo hura haunditzen, eta emaitza ez da edonolakoa izan. Itxurazko sagardotegia geratu baita azkenean.

Ez da zaila igertzea noiz dagoen sagardotegia zabalik. Izan ere, Santueneko sarrera kotxez josirik egoten da. Sagardotegi aurrean dagoen aparkaleku hori txiki bihurtzen denez, inguruko espaloiak izaten dira erremedio hoberena.

URDAIAGA

Eider Jauregi

Gabonak

Dagoeneko gabonak ere gainean ditugu eta horrekin batera Olentzero eta Erregeen etorrera ere bai. Dagoeneko haur askok eta askok euren eskutitzak idatziak izango dituzte eta egunak atzeraka kontatzen ari denik ere izango da.

Urtero bezala jakin arazi nahi diet usurbilgo haur guztiei, bai Olentzero eta bai Erregeak, Andatza aldetik jeisten direla eta txintxo portatu badira urte guztian zehar, opari mordoa jasotzeko aukera izango dutela, bestela, berriz, ikatza jaso beharko dutela. Baina hori Olentzero eta Erregeen esku dago. Hala ere, haur guztiek jar dezakete beren aldetik zerbait Olentzero eta Erregeen erabakiak aldatzeko.

Hari honetatik, urtero bezala ilusioa banatzeko prest daudenek, Errege kabalgatan parte har dezakete erregeen laguntzaile. Interesa duenarentzat esan, abenduaren 29an, Ziortzako geletan bilera bat izango dela arratsaldeko 19.30etan. Beraz, gabonetako magia banatu nahi duenak badaki zer egin.

Olentzero edo Erregeen begirunea lortu nahi duena, berriz, txintxo-txintxo porta dadila

AGINAGA

Izaro Aizpurua

Egingo dugu festa

Urrian San Praixkuek ez bazuten arrakastarik izan, orain, abenduan ere ez dugu asmatu jai giroa jartzen. Asteburu honetan ospatu den "Egingo dugu"ren festan ez da jende gehiegi ibili. Gehienbat auzokoak, plaza bertatik bertara dutenak izan dira, kanpoko jende oso gutxi, eta ez zen proposamen faltagatik izango, izan ere, musika eta parrandarako aukera paregabea eskaintzen baitzen. (batzuk ondo aprobatxatu zutena testigu!)

Asteburuko animazio puntua sokatirako norgehiagokak jarri zuen. Lehian Aginagako bost talde (Aginaga K.E., E.H.askatu, Pakito Boys, Gazteak eta Goitarrak) eta Zubietako talde bat ziren. Lehenengo kaleraketan Zubietarrak eta Goitarrak geratu ziren kanpoan. Semifinalean, berriz, Pakito Boys eta Gazteak geratu ziren atzean eta finalean, lehia bizian, Aginaga K.E eta E.H. askatu aritu ziren. Hemen, gainera, haserre txikiren bat ere izan zuten gaizki

ulertu bat zela eta. Azkenean, publikoa epailearekin haserre, Aginaga K.E. nagusi eta bigarren postuan E.H. askatu. Sokatira saio honetan, gainera, aipamen berezia merezi dute Gazteak taldearen animatzaileek, bailak salta eta... nerbioak galduta ibili ziren.

Sokatiraz gain mus txapelketa ere ospatu zen eta hemen, **Xabier Orbegozo** eta **Joseba Larburu** izan ziren garaile.

Eta bukatzeko, eskerrak luzatu behar txoko honetatik festa hau posible egin duten guztiei, batez ere oholtza gainean xentimork jaso gabe aritu ziren artista guztiei. ESKERRIK ASKO!

ZUBIETA

Xabier Arregi

Kontu zaharrak eta albiste berriak

Kontu eta ohitura zaharrei eutsiz esango diogu adio zubietarrok urteari. Aurten ere, Santo Tomas eguna ospatzeko antzerki saio bat eskaini digute herriko gaztetxoek Lanbide ikastetxean. Kimu Berri taldekoek saio polita eta entretenigarria osatu dute berriro ere. Bistakoa da taldea, gaztetxo eta haurrez osatuta egonagatik, gero eta helduagoa dela. Antzezlanaren osagarri, trikitixa eta txistorra ere suelto izan genituen abenduaren 19ko ospakizunean. Badira sekula galdu behar ez diren ohiturak, eta Santo Tomas bezperako hau horietako bat da.

Behin gabonei hasiera ederra emanez gero, Kimu Berri taldekoak ez omen daude geldirik egoteko asmotan eta, esan digutenez, Jaiotza eta Olentzero ere plazaratuko dituzte Zubietan. Tira ba, ekimen horrek ez du gutxi balio eta harrera ona egingo diegu herritarrok.

Gabon kontuak alde batera utzita, albiste pozgarria iritsi zitzaigun joan den astean Diputaziotik. Hainbeste saiatu eta gero, azkenean, Zubietako Plan Partzialari behin-betiko onarpena eman zaio abenduaren 15ean. Beraz, baimen guztiak emanda daude Plan hori martxan jarri eta eraikuntzari ekiteko. Ez dago gaizki urte berriari ilusioz ekiteko.

827.497.096 milioiko aurrekontua izango du herriak XX. mendeko azken urtean

Udalak inoiz izan duen aurrekonturik haundiena izango du 1999an. Hala erabaki zuten abenduaren 22an egin zen plenoan Herri Batasunako eta Eusko Alkartasunako zinegotzi eta Izaskun Maiz independientearen baiezko botuekin. Bigarren urtez jarraian, urtea amaitu aurretik onartu da aurrekontua. 1999an 828 milioko aurrekontua izango du udalak, nahiz eta kreditu aldaketaren baten bidez kopuru hau haunditzea aurreikusita duten.

Elkarlanean egindako aurrekontua da 1999koa. 2000. urtearen atarian, aurrekontua zehazterakoan aurreko urteetan ez bezalako hartuemanak izan dituzte alderdi politikoek. Lehen Herri Batasunak berak egindakoa aurkezten zien beste alderdiei, hauek emendakinak sartu ahal izateko. Aurten, ordea, guztia elkarrekin lantzeko aukera izan dute. Bizpahiru bilera egin dituzte, batzuetan ados jarri dira, besteetan ez, baina Eusko Alkartasunaren ekarpenak %90an onartu dituztela adierazi digute H.Bkoek.

Elkarlan giro honetan aurrekontua moldatu ondoren, inoiz udalak izan duen aurrekonturik haundiena izango da 1999koa. 828 milioi ingurura igoko da datorren urteko aurrekontua eta 1997an baino 161 milioi gehiago erabili ahal izango dira. Izan ere, aurreko aurrekontua 667 milioikoa izan zen. Hala ere, udaleko ordezkarien esanetan, badago diru kopuruaren haunditzea baino gauza garrantzitsuagoa: bigarren urtez jarraian krediturik, prestamorik gabeko aurrekontua izango da. Aurrekontua aurrera ateratzeko ez da krediturik eskatuko.

Gastuei dagokionez, langile gastuak kontuan hartu beharrekoak dira. Datorren urtean aldaketa garrantzitsua eman daiteke langile arloan eta horrek badu eraginik gastuak finkatzerakoan.

> **Herri Batasuna:**
>
> **"Historikoak kopuru aldetik. Lan banaketa eta elkarlanean eginak."**

1999an 32 orduko lanastea jarri nahi da udaleko langileentzat. Oraindik ezer zehaztu gabe dago, langile komitearekin negoziaketak egin behar dira, baina badaezpada ere guzti hau datorren urteko aurrekontuan aurreikusi dute. Zer ekarriko luke 32 orduko lanasteak? Lan banaketa honekin bost lanpostu berri sortuko lirateke udalean eta luzaroan langabezian daudenentzat lana sortzeko proiektua ere martxan dago. Honela, 268 milioitik 300 milioira igoko dira pertsonal gastuak.

Diru kopuruari begiratzen badiogu, inbertsioetan igoera nabarmena da; datorren urtean guztira 220 milioi gastatzea aurreikusten da. Hala ere,

XABIER EDARITEGIA
• Pintxo aukera bikaina
• Gosari bereziak
Urte zaharra ondo bukatu eta berria hobeto hasi.
Zorionak!
Aritzeta, 2 943 36 19 78



TXIRIBOGA TABERNA
Urte berri on!
Irazu kalea, 3 - Tlf. 943 37 00 13

SERIGRAFIA TANPOGRAFIA
LOSU
Ugaldea poligonoa 36 - 2º-1 Esk
Usurbil - Gipuzkoa
943 37 19 54
EGVBERRI ETA VRTE BERRI ON!

eju txikia

1998ko lanen jarraipenak izango dira datorren urtekoak, amaitu gabe dauden lanak bukatzeko erabiliko baita diru kopuru honen zati haundi bat.

Atxegaldeko urbanizazioa amaitzeko 24 milioi jarriko dira, Etxealdiako sarrera berria egiteko 27 milioi, anbulategi inguruko urbanizazioarekin bukatzeko eta Ugarte industrialdean aurten erosi den lokala ordaintzen amaitzeko 8,5 milioi.

Hilerri berria egiten datorren urtean hasiko dira. 18 hilabeteko lana izango da eta aurrekontu honetan bideratu den diru kopurua, beste bi urtetan jarriko denaz osatuko da; azken finean 3 urtetako aurrekontuen bizkar dijoa hilerria. Datorren urterako 60 milioi aurreikusi dira.

Atxegaldeko urbanizazioa amaitzear badago ere, beste auzoak urbanizatu nahi ditu udalak. Horretarako, Etxe-

Eusko Alkartasuna:

"Gure herri ikuspegiarekin bat datorren aurrekontua dugu 1999koa"

aldiako eta Eguzkitza auzoko urbanizazioaren proiektu idazketak egingo dira 1999an. Hala ere, **Joxe Antonio Altuna** alkatearen esanetan Etxealdiak lehentasuna du. *"Bi proiekto hauen idazketarako 4 milioi jarri ditugu, baina Etxealdiak du lehentasuna. Etxealdia urbanizatzea da udalaren helburua eta kreditu aldaketa batekin horri ekin diezaiokegu laister batean".*

Kulturari dagokionez, Udarregi zaharra kulturgune bihurtzeko ametsa aspaldikoa da. Herriko kultur talde ugariren eskakizuna dugu hau, eta datorren urtean amets hori egi bihurtzeko bidean ideia lehiaketa bat egingo da. Irabazten duenak, 1999an bertan proiektoa idazteko aukera izango du.

Inbertsioekin amaitzeko, nekazal mailan ere zenbait lan egingo dira. Nekazal guneetara ura eramateko 6 milioi aurreikusten dira.

Sarreretan ez dago aldaketa haundirik. Aurrekontu honetara moldatzeko arazorik ez dutela izango pentsatzen dute eta otsaila, martxoa aldera kreditu aldaketa egiteko asmoa ere badute. Aldaketa bakarra Eroskirengandik jasotako diruak suposatzen du. Horrez gain Euskal fondotik diru gehiago jasoko dutelakoan daude. *"Aurten 290 milioi inguru jaso ditugu, eta datorren urterako 315 milioi izatea espero dugu, 25 milioi gehiago".*

Aurrekontu historikoak ote? Hala dirudi. XX. mendeko azken urterako aurrekontua udalak inoiz izan duen haundiena izateaz gain, elkarlanean egindakoak omen dira. XXI. mendearen usainak esperantzarako bideak ireki dituela dirudi.

Josu Aranberri

Aurten, Paris etxe atzeko parkeko proiektua egin ahal izateko ideia lehiaketa bat egin da. Datorren urterako proiektua idazteko bi milioiko diru kourua bideratuko da

Oharra: Datu gehiago, taulak, diru kopuru zehatzak... datorren alean emango ditugu

Eguberri eta urte berri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

Haur jantziak

Pauma

Kale Nagusia, 2 Tel. 943 36 59 43

Zorionak eta urte berri on!

gorriti EDARITEGIA

kafe berezia

ETXE-ALDIA, 1

TLF 943 36 27 70

20170 USURBIL

TABERNA JATETXEA

ANTXETA

Urte berri on!

Egukitza, 4 Tel. 943 37 03 44

KONPONKETAK
ALDAMU
Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
Zapatak, Kanpinak, Kremailerak (poltsak, zamarrak, galtzak...)
Giltzak kopiatzen ditugu
Kale Nagusia, 2 - Tel: 943 37 27 95

Biken
Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
Solarium
Depilazioa
Ileapaindegia
NAGUSIA, 2 -Tlf 943 37 28 44 -20170 USURBIL (GIPUZKOA)

TXAPARTEGI
HARATEGIA
Kale Nagusia, 9
Tel. 943 36 48 00
Aginaga
Tel. 943 36 19 07

mur
ERROTULAZIOAK
mota guztietako errotuloak
IBILGAILUAK - ERAKUSTOKIAK
PANKARTAK - KARTELAK ...
Kale nagusia, 2
☎ Fax : 36 60 21
Urte berri on!

PKOi
OINETAKO DENDA
Aritzeta 2 - 2 Usurbil
Zorionak eta urte berri on!

ARRATE
ZAHAR EGOITZA
TABERNA-JATETXEA
Eguberri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
Aginaga Tlf. 943 36 63 40

LE MANS ASEGURUAK
PIKABEA AGENTZIA
• Istripuak
• Autoak
• Etxeak
• Komertzioak...
• Prezio onean
• Eskatu aurrekontua konpromezurik gabe
Eguberri eta urte berri on!
Uzturre plaza, 8 LASARTE-ORIA Tlf 943 37 11 18/37 19 97 tel-fax

Laurok
Liburudenda
Jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
ALPERROBURU KALEA-BEHEA
20170 USURBIL TLF 36 34 48

IRRATI TABERNA
Ondo pasa itzazue eguberri festa hauek!
Txanpaina hozten jarria daukagu!

Herorrek esan

1998. urtea mantso ala azkar pasa zaizu?

INKESTA

Gloria Avila

Kaleberri

Niri sinistezinezko abiadan pasa zait urtea. Oso ondo joan zait eta umea zaintzen ari naizenetik askoz hobeto nabil eta azkarrago pasatzen zait denbora. Datorren urtea ere honelakoa edo hobea izatea espero dut.

Nikolas Huizi

Eguzkitzaldea

Guri oso azkar joaten zaizkigu urteak, baina azkarregi ere ez, normal. 40 urte betetzean urteak binaka pasatzen direla esaten duen esaera bada, baina horrekin ez nago ados. Lanean zabiltzanean, okupatuta zaudenean azkarrago pasatzen da denbora, orain ordea, mantsoago.

Lurdes Jauregiberri

Kaleberri

Denbora habailan pasatzen da eta gero eta azkarrago gainera. Beti dugu zerbait egiteko eta zer ordu den pentsatzeko denborarik ere ez daukagu.

Silvestre Alvarez

Olarriondo

Beti bezala, ez al dira ba 365 egun pasako? Hala ere ondo joan da urtea, jubilatu ondoren konturatu gabe pasatzen baita urtea. Letxu bila hiruretan atera eta bostak dira ja, azkar pasatzen da denbora. Datorren urteari mugitua izatea eskatuko nioke.

Unai Rodriguez

Eguzkitzaldea

Niri azkar pasa zait urtea eta gauza onak gertatzean azkarrago. Oporretan ondo pasa dut eta azkarrago pasa zait denbora. Udarako egunak ikastolara joaten garenekoak baino azkarrago

Rosalia Arrastio

Etxealdia

Nahiko azkar joan zait urtea. Urteak aurrera doazen neurrian urteak mantsoago pasatzen direla esaten dute, baina niretzat gero eta urte gehiago izan azkarrago pasatzen da, 6 seme-alaba ditut eta haien arazoak nireak izaten dira.

Pello Hernandez

Bizkarre

Ez dakit zergatik, baina oso azkar joan da urtea, konturatu gabe. Bizitzako etapa desberdinak mantsoago edo azkarrago joaten dira, baina 1998a behintzat azkar pasa da.

Agurne Alkorta

Kaleberri

Azkar pasa zait urtea, baina ez dakit zergatik. Hala ere udara azkarrago pasa zitzaidan. Ikastolan gabiltzanean mantsoago pasatzen dira egunak, batez ere azterketetan gaudenean.

Jai zoriontsuak igaro

Ekaitz

Bideo eta Argazkiak

Usurbil tlf 943 36 14 87 Ondartzun

Eguberri on!

ZUMETA JATETXEA

Txoko alde, Tel.: 94336 27 13

ZUMETA MENUAK
(Gutxienez 2 lagunentzat)

- Etxeko ahate foie-a aran pasa eta pattarraz
- Itsaski entsalada hozberoa trufa zaporez
- Zapoa txangurroz beterik eta itsaski saltsaz
- Aspizuna patata pure, onddo eta pikilo piperraz haragi saltsatan
- Etxeko azkenburukoen dastapena

Ogia eta kafea 3.475 pta. (pertsonako)

Erantzun bikaina eman zaio Mikel Elexpek egindako eskaerari

Gabonak iristean jostailuetara ihes egiten dute hemengo umeen begiek. Kalean eta etxean askotan entzuten dugun galdera izaten da: zer ekarri behar dizu Olentzerok? Zer Erregeek? Munduko txoko askotan, ordea, ez dute horrelako pagotxarik. Mikel Elexpek badaki hori. Ekuadorren dagoen Lojako albergeko umeentzat, erabilitako jostailuak eskatu ditu gabonetan banatzeko.

"Lojako albergeko 85 umeentzat hor erabiltzen ez dituzuen jostailuak edo jolasak hemen banan-banan banatu nahi nituzke abenduaren 25ean. Denetatik onartzeko gauza naiz, puzleak, ume jokoak, baloiak, jolasak... eta hauek ez badira ere eskolako tresnak: koadernoak, lapitzak, boligrafoak... Ea ba zuen laguntzarekin Lojako albergeko 85 ume hauen bihotzak xamurtzen dituzuen".

"Mikel ezagutzen dugu, dei bat egin die usurbildarrei... horregatik animatu naiz jostailuak bidaltzera"

Hauxe da **Mikel Elexpek Joxe Antonio Altuna** alkateari bidali zion mezua. Jostailu batzuk eskatzen zizkion usurbildarron ordezkari nagusiari eta usurbildarrek ez dute huts egin. *Noaua!* Kultur Elkartearen egoitza da horren adierazgarri. Gurasoak, gazteak, umeak... mota guztietako jendea pasa da jostailuak uztera. Ez pentsa bakoitzak jolas aleren bat ekarri duenik, bai zera, mota guztietako jolasez betetako poltsa haundien artean eman ditugu abenduko hiru lehenengo asteak.

Mikelen eskaerak arrakasta haundia izan du herrian. Gabonen atarian, hainbeste urtetan jolas lagun izandakoak, Ekuadorrera bidaltzeko prest agertu da jendea. Aldizkari honetan irakurri eta herrian zabaldu da pixkanaka-pixkanaka jostailuen kontu hau. Poltsa haundi batekin etorri zen horietako baten esanetan *Noaua!n* irakurri zuenean etxean zeuden jostailu, jolas eta horrelakoak ekartzera segituan animatu zen. *"Irakurri ondoren etxean zeuden hainbat gauza eramatea erabaki nuen. Norabaitera eraman behar ditugula askotan esaten nionsemeari, baina inoiz ez dut egin. Baina oraingoan esan dut, Mikel ezagutzen dugu, dei bat egin die usurbildarrei... horregatik animatu naiz behingoz bidaltzera".*

Guraso asko etorri dira jostailuak eta bestelakoak uztera, baina umeek, zer pentsatzen dute jostailu horien benetako jabeek? Gurasoen

Igandetan ganba-ziri mundialak!

Iturgintza - Gasa - Berokuntza



J. Orbegozo

Urte berri on!

Bizkarra 1, 1.esk. ☎ 37 29 37 - 36 59 26

esanetan gehienetan umeek ez dute trabarik jarri. *"Beren oniritziarekin ekarri ditut jostailuak-* zioen batek- *Hori bai, oso bereak dituzten gauzak jaso egin dituzte. Hala ere, ondo iruditu zaie beste guztia Ekuadorrera bidaltzeko eramatea".*

5 urteko umeek ere badakite ezer ez duten umeei, pobreei gauzak bidaltzen dizkiogula

Arantxa Iribar eskolaurreko irakaslearen esanetan, ikastolan ere atera da gai hau. *"Mikelen eskaeraz hitz egin dugu 5 urteko haurrekin adibidez, eta orokorrean badakite ez duten umeei, pobreei gauzak bidaltzen dizkiegula. Haiek ez dutela ezer esaten duten berek eta horregatik bidaltzen dizkiegula jolasak etab."*

Traste gutxiago etxean

Beste batzuei ordea, Mikelen eskaera hau ganbarako bazterrak hustutzeko ondo etorri zaie. Urteetan zehar gordetzen joandako jostailuak, liburuxkak, boligrafoak... poltsa batean sartu eta *Noaua!*ra ekarri dituzte. *"Hor geneuzkan gordeta. Nonbaitera ezkutatzeko desiratzen, baina ezin bistatik kendu. Horregatik Ekuadorren behar dutela jakin dugunean ez dugu dudarik izan".* Bazterrean zeuden gauzekin ume batzuk zoriontsu egin daitezkeela konturatu da jende asko.

Hona hemen bildutako jostailuetatik batzuk. Mlkeli 100 kilo bidaliko zaizkio, beste guztia ONG desberdinei emango zaie.

Mikel Elexpe ezaguna da Usurbilen. Ziortza Gazte Taldean monitore bezala ibilia, hainbat ume festa alaitu zuen bere garaian. Orain, Lojatik zerbait eskatu duenean herriak ez dio bizkarra eman. Etxekoen esanetan ez zuen uste horrenbeste jostailu bilduko zirenik, harrituta omen dago herriak emandako erantzunarekin. Berak 85 umeentzat jostailu batzuk besterik ez zituen eskatzen. *"Lojako alberge honetan, abandonatuak, emagaldu eta mozkorren umeak, errekurtso ekonomiko oso bajuetakoak, ikusi gabe sinistu ezin diren hainbat eta hainbat kasuetako umeak daude".* Aurten eguberriak han pasa behar dituenez hango umeek, egun batez behintzat, jostailu edo horrelakoak jasoaz disfruta dezatela okurritu zitzaion.

Abenduaren 25ean banatu nahi zituen hemen bildutako jostailuak, baina agian urtarrilaren 6a arte itxaron beharko dute. Jostailuak bildu dira, bai, baina orain Ekuadorrera bidali behar dira. Olentzerori Lojara joan etorri bat egiteko modurik bazuen galdetu zitzaion, baina Euskal Herrian nahikoa lan zuela erantzun omen zuen. Horregatik Postaz bidaliko dira jostailuak Ekuadorrera.

Ez zaio jaso den guztia bidaliko. Herritarren erantzun ezin hobearen ondorioz jostailu asko bildu da, baina 100 kilo bidaliko zaizkio Mikeli Lojara. Beste guztia ONG desberdinei luzatuko zaie, beharrean dauden beste herrietara Usurbilen bildutako jostailuak bidali ditzaten. Batean edo bestean ziur guk baino gehiago erabiliko dituztela jostailu hauek.

Josu Aranberri

Esnaola
Usaindegia
Ondo igaro festak!
Zubiaurrenea, 3
Tlf: 943 36 25 55

NOAUA!k EGUBERRI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE GUZTIOI

ARGILAN
Etxetresna elektrikoak
Eguberri zoriontsuak opa dizkizuegu!
Kontzeju zaharra, 13
Usurbil
☎ 943 36 13 80

Etxeko berri



99ko egutegia.



Posterrak:
200pta. bakoitza.

Postalak:
50pta. bakoitza.



Urtea joan zaigula, habaila ederrean! **Noaua! Kultur Elkartean** ere hala joan zaigu. Horretaz, Eguberri eta Urte berri on irakurle guztioi!

Jabetuko zaretenez, **Noaua! Kultur Elkarteak** ahalegin berezia egin du urtearen azken txanpa honetan. Badauka zer eskainia, alajaina! Berrikuntza moduan, postal sorta dotore askoa jarri nahi dugu zuen eskura. Bazkideen artean deia zabaldu ondoren, hamabi lagunen argazkiak jaso ditugu. Hauen eta gure artxiboan geneuzkanen artean aukeratu ditugu aurkezten dizkizuegun zortziak. Beraz, eskerrak parte hartu duzuen guztioi! Eutsi ilusio horri!

Era berean, aurten ere, datorren urteko egutegia mimo haundiz prestatu dugu, ahalik eta leku gehienetan ikus dadin urte guztian zehar. Gustukoa izango ahal duzue! Atal honetan, **Alejandro Tapia** eskertu nahi dugu, egutegirako bere grabatua erabiltzeko eskuzabaltasunez prestatu delako.

Azkenik, aurten plazaratu ditugun herriko auzoetako posterrak edonoren eskura dauzkagu.**Noaua! Kultur Elkartetik** pasa besterik ez daukazue.

Gogoa eta ilusioa izan dezagula gure bazkide eta irakurleei ahalik eta zerbitzu gehien eskaintzen segitzeko. Biba zuek!

BAZKIDE TXARTELA

N .u. KULTUR ELKARTEA

5000 PEZETA URTE OSORAKO

Izena: _____
1.Abizena: _____
2.Abizena: _____
Helbidea: _____
Herria: _____
Tfnoa: _____

424

bazkide ditu Noaua!k.

Zu ere egin zaitez bazkide

ANA
janaridenda

EGUBERRI ETA
URTE BERRI ON!

Borda berri, 3
Usurbil
☎ 943 36 57 92

okindegia
gozotegia
MARY
Gaztañazpi, 1 - Tel: 37 10 80
USURBIL

Eguberri eta urte berri on!

AGIRREZABAL estankoa

Jai zoriontsuak usurbildar guztioi!

Kale nagusia 27
Telefonoa: 943 36 11 10

EA
Jai zoriontsuak!

BIDEO IKUSKA

Filmerik berrienak aurkituko dituzu

Disney pelikulak eta jokoak salgai

Kale Nagusia, 25-Tel. 943 37 10 98

ONDO BUKATU URTEA ETA HOBETO HASI BERRIA!

ARRANDEGIA MIKEL
Gaztañazpi, 1 - Tel.: 943 36 63 56
USURBIL

Usurbilgo
HERRI BATASUNA

Ondo pasa denok
eta ea autengoa den
zuek gabe azkenekoa

EAJ PNV

EAJ-PNVk Eguberri paketsuak
opa dizkizue

OIARDO
UDAL KIROLDEGIA

Urte berri on!

Abenduaren 24, 25, 31 eta urtarrilaren 1 eta 6an itxita

USURBIL
TLF.: 37 24 98

Uste baino jende gutxiago Egingo dugu jaian

Gara egingo dugu" lemapean hiru eguneko festa egin zen abenduko bigarren asteburuan. Gara egunkari berriaren proiektua aurrera ateratzen laguntzeko, diru pixka bat ateratzea zen helburua. Hala ere, nahi baino jende gutxiago gerturatu zen Aginagara. **Akelarre, Izotz, Morau, Atxantatu**... musikak bere tokia izan zuen, baina mus txapelketa, sokatira eta bertso saioa izan ziren arrakasta haundiena izan zutenak. Sokatiran, azken bi tiraldi estu eta eztabaidatsuen ondoren **Aginaga K.E.ak** irabazi zion **Euskal Herria Askatu!ri**. Bertso saioak berriz, jende ugari bildu zuen Aginagako zineman.

Kirikoketak diskoa grabatuko du gabonetan

Aspaldiko asmoa egi bihurtuko da aurtengo gabonetan. Kirikoketa txalaparta taldeak bere lehen disko konpaktoa grabatuko du gabonetan Elkar disketxearekin. Dena prest dute, eta abenduaren 28-29-30 eta urtarrilaren 4-5-6an sartuko dira estudiora iraupen luzeko lan hau grabatzera.

Mikel Artola, **Iker Muguruza**, **Pello De La Cruz** eta **Jesus Artzek** osatutako taldeak hiru urte daramatza txalaparta lantzen. Udalak utzitako Atxegaldeko lokal batean biltzen dira larunbatero eta hiru orduz auzo guztira zabaltzen dituzte "ttakun" hotsak.

Usurbila ezezik, Euskal Herriko hainbat txokotara ere iritsi da Kirikoketaren txalaparta. Larrua Truken disko konpaktoan elkarrekin abesti bat egiteaz gain, hainbat kontzertutan parte hartu dute **Mikel Laboa** eta Iñaki **Salvador** eta Zilbor-Heztea taldearekin.



Gabonetako oporrak aprobetxatuz disko konpaktoa grabatuko dute abenduaren amaieran eta urtarrilaren hasieran. Elkar disketxearekin argitaratuko dute beren lehen iraupen luzeko lana.

Azaroan zehar **Iñaki Salvadorrekin** zenbait kontzertu eman behar badituzte ere, disko berriaren nondiknorakoak zehaztuta dituzte. Diskoaren hasieran eta bukaeran ezkilak joko dituzte. Hauek **Tomas Gamboa** txapeldunarekin grabatuko dituzte Arruazuko herrian. Ondoren, lau txalaparta saio tartekatuko dituzte eta beste zenbait pieza beste artista ezagun batzuekin: **Mikel Etxekopar**, Zuberotar txistulari ospetsua, **Zumarteko korua**, **Mikel Laboa** eta **Iñaki Salvadorrekin** elkar lanean lau abesti osatu dituzte.

Diskoko idatziak **Joxean Artzek** egingo ditu, argazkiak **Joxe Mari Zabalak** eta portada **Bixente Ameztoi** margolariak.

JUANTXO
Burdindegia
Eguberri eta urte berri on!
Kale nagusia, 10
Usurbil
943 37 00 08

LABE-GOXO
Kale Nagusia, 2
Tel. 943 37 33 48
37 09 13

Eguberri eta urte berri on! Zorionak!

LIZARDI
LIBURUDENDA
Zure oparietarako
Zorionak eta urte berri on!
K/ Etxebeste, 1 Tel. 943 36 11 15

alda

UEMAK JUSTIZIAREN EUSKALDUNTZEA ESKATU DU

Udal Euskaldunen Mankomunitateak herri txikietan Justizia administrazioan euskaldunen eskubideak ez direla betetzen salatu zuen pasa bden abenduaren 17an. Bertan, azken bi asteetan Usurbilen gertatutako kasu bat azaldu zuten herritar euskaldunek herri euskaldunetan duten egoeraren adibide gisa: baserri baten jabetzaren inguruan ika-mika sortu da bi baserritarren artean, eta gataka herriko bake epaitegiraino iritsi da. Bi pertsona horiek, hara joandakoan, oztopo gaindizezina aurkitu zuten: bi funtzionarioak erdaldunak dira, eta haiek erdaraz hitz egiteko kasik ez dira gai.

Pasa den abenduaren 16an duela 2 urte epaiketa bat eteteagatik E.H.E.ko 8 gazte epaitu zituzten Donostiako Entzutegian. Tartean ziren bi usurbildar eta zigor desberdinak eskatu zituen fiskalak. 120.000 pezetako isuna edo bost asteburuko arrestoa batentzat (adin txikikoa izateagatik) eta 480.000 pezetako isuna bestearentzat. Hauek epaitzen zituzten bitartean hainbat pertsona konzentratu ziren kanpoan Ertzaintzak hauek filmatu eta pankartaren atzean zeudenak identifikatu zituen.

Ulertzeko ezintasuna ikusita, bake epaitegiko funtzionarioak udalera jo behar izan zuen itzultzaile eske. Egoera horrek bi familia horiek nahastu dituela salatu zuten UEMAko kideek, eta antzeko egoerak eguneroko ogi direla gaineratu. Usurbilgo udaleko arduradunek antzeko egoerei bukaera emateko eskatu diote administrazioari, eta horretarako bake epaitegia zerbitzu euskalduna jartzeko eskatu.



Usurbilgo organoa Salbatore parrokiara ekarri zutela iaz bete ziren 100 urte. Tekla hauek jo dituzten pertsonak asko izan dira, baina nazioarteko organujoleak ere pasa dira Usurbildik. Abenduaren 12an adibidez, **Mario Duella** italiarrak XIX. mendeko bigarren zatiko konpositoreen estilo erromantikoko obrak (Edouard Batiste, Marco Enrico Bossi, Theodore Salome, Theodore Dubois...) eskaini zituen Organoaren lagunak taldeak antolatutako ekitaldian.

Udalak, Guraso Eskolak eta parrokiko taldeak **Peruko eskulangintza erakusketa** antolatu dute aurten ere hirugarren munduari lagundu asmoz. Pasa den urtean erakusketa honek izan zuen arrakasta ikusita, aurten ere Udarregi zaharrean ikusi eta erosi ahal izan dira eskulan hauek. Jendearen erantzuna oso ona izan da. Usurbildar ugari pasa da Perun egindako egurrezko, harrizko nahiz bustinezko eskulanak ikustera eta salmenta onak izan dira.

USURBIL
OPTIKA
Irazu kalea, 9-11. Usurbil
Tlf. eta Faxa: 943 37 02 69
EGUBERRI ETA URTE BERRI ON!
Eguzkitako betaurrekoak %10, 15 eta 40ko deskontuan
Web, Vogart, Guess, Rochas eta Bollé markak

Iker Alduntzin Espainiako dardo txapelduna

Dardotara jokatzeko ohitura bete-betean sartu da Usurbilen. Azken hiru urteetan gorakada nabarmena izan du joku honek, eta zenbait usurbildarrek maila ona dutela erakutsi dute azken aldi honetan. Abenduaren 4tik 8ra bitartean Gironan jokatu zen Espainiako dardo txapelketan sei usurbildarrek parte hartu zuten. Iker Alduntzinek lehen postua eskuratu zuen "top gun" modalitatean eta Joxe Manuel Ikutza bigarren sailkatu zen binaka. Honenbestez, bi hauek "master" mailara igo dira, bigarren maila haundienera,

Ez da dardotara jokatzera Gipuzkoatik irtetzen diren lehen aldia. Aurten, adibidez, **Iker Alduntzin** eta **Silvia Faz** Suizan izan dira Europako txapelketa jokatzen. Oraingoan, ordea, kopuru aldetik usurbildar ugari joan da Espainiako txapelketara.

Dardo joko honetan 4 maila daude. Pro-master da mailarik altuena, eta gero datoz, master, 1. maila eta 2. maila. Pixkanaka-pixkanaka mailaz igotzen joan dira Irrati pub-eko dardo botatzaileak. Gironara joateko txartela eskuratzeko Gipuzkoa mailan taldekako txapelketa jokatu dute eta ez dira batere gaizki ibili. Lehen mailan, **Iker Alduntzin, Iñaki Udabe, Joxe Manuel Ikutza** eta **Igor Uribek** osatutako taldeak lehen postua lortu zuten. Bigarren mailan, berriz, zorte berdina izan zuten **Andoni Lizarralde, Imanol Zaldua, Eraunskin eta Ariztetak** osatutako taldeak.

Master mailara igotzea lortu dute

Gironan modalitate desberdinak jokatu dituzte: killer, 501, Triangulo de las Bermudas, Killer-top gun..., azken honetan lortu zuen garaipena **Iker Alduntzinek**. *"Iritsi eta egun berean jokatu genuen joko honetara eta irabaztea lortu nuen. 100.000 pezetako saria eman zidaten"*. Hala ere ez zen arrakasta izan zuen dardo botatzaile bakarra izan, **Joxe Manuel Ikutzak**, Pasaiako batekin bigarren postua eskuratu baitzuen binakako "killer"ean. Honenbestez, "master" mailara igotzea lortu dute biek.

Espainiako txapelketa honetan Estatu espainoleko leku guztietako jendea izan da Ikerren esanetan. *"Valentziakoak, Granadakoak, Madrilekoak... eta gehienbat Kataluniako botatzaileak izan dira Gironan. Guzti hauetatik katalanak nabarmendu behar dira, han asko jokatzen baita. Haiekin alderatuz gutxi jokatzen da Euskal Herrian"*.

Orain banakako eta binakako txapelketak

Usurbilen badago dardotara jokatzeko joera. Irrati pub-ean dagoen dardo makinaz gain Txurrut tabernan beste bat dago, eta hauek ere txapelketetan parte hartzen hasi dira. Taldekakoa jokatu dute, baina dardo denboraldia ez da honekin amaitzen. Orain banakako txapelketari ekingo diote Gipuzkoa mailan eta honen ondoren etorriko da binakakoa. Ea ba begi ona izaten duten!

Kinkildegia
Zorionak eta urte berri on!
Lentzeria, gizonezkoentzat arropa, haurren jantziak, etxerako behar dituzunak
Aritzeta 1 behea, 20170 Usurbil
☎ 943 36 17 87

PINTURAK FERNANDO
MARGOAK-PAPERAK
Sintasola, moketa, kortxoa eta tarima jartzen dira
Bizkarre, 6 Usurbil
Tlf 943 36 60 19-36 34 60
ZORIONAK!

Eguberri eta urte berri on!
N•1
Ileapaindegia
MISTOA
Solarium, depilazioa, makilajea eta manikura
Aritzeta 2 - 2 1.A
Tel: 943 36 19 51

atsetan

ABENDUAK 26 larunbata

- Usurbil F.T.ak antolatuta **gabonetako torneoa** jokatuko da **Harane futbol zelaian**. Bertan, herriko futbol talde desberdinek parte hartuko dute: **Usurbil Futbol Taldeko errejional eta jubenilek eta Aginaga Sagardotegiak**. Arratsaldeko 15.00etan hasita.

URTARRILAK 8 larunbata

- **Futbol partidua** 2. kadete mailan (M): **Texas Las. - Usurbil F.T.** Michelingo futbol zelaian.

  1. errejional mailako **futbol partidua** (M): **Aurrera- Usurbil F.T.**

- 2. nazionaleko **eskubaloi partidua** (M): **Usurbil K.E. - Pulpo**. Oiardo kiroldegian 18.30etan.
- Kadete mailako **eskubaloi partidua** (M): **Donibane - Usurbil K.E.**
- Jubenil mailako **eskubaloi partidua** (M): **Aloña Mendi - Usurbil K.E.**
- Kadete mailako **eskubaloi partidua** (N): **Usurbil K.E. - Urnietako.** Oiardo kiroldegian 17.00etan.
- Jubenil mailako **eskubaloi partidua** (N): **Urnietako - Usurbil K.E.**
- Nesken errejional mailako **futbol partidua** (N): **Añorga - Usurbil F.T**

Emaitzak

Futbola

Abenduak 12-13

Arretxabaleta **1** Usurbil F.T **3** (1.R.)
Usurbil F.T **2** Urnieta B **1** (ju.m) **0**
Usurbil F.T **1** Dumboa **3** (n.)
Añorga **4** Usurbil F.T **0** (k.m)

Eskubaloia

Abenduak 12-13

Ereintza **19** Usurbil K.E. **24** (2.N.)
Usurbil K.E. **14** Bergara **15** (ju.n)
Zarautz. **11** Usurbil K.E **6** (ka.n)
Almen **31** Usurbil K.E. **34** (ju.m)
Almen **14** Usurbil K.E. 23 (ka.m)

Futbol Aretoa

Antxeta **6** Donibane **0** (ju.m)

Errejional mailako neskak. Usurbil Futbol Taldea.

Ezkerretik eskubira. Goian: Intza Salsamendi, Imanol Bereziartua (entrenatzailea), Lur Etxeberria, Jone Aliri, Aroa Alkorta, Amagoia Mujika, Amagoia Zinkunegi, Maider Izagirre, Ainhoa Bereziartua, Vanesa Lopez, Ibon Borda (entrenatzailea), Saioa Fernandez (delegatua). Behean: Leire Mujika, Nagore Gonzalez, Aitziber Aranberri, Mª Karmen Rodriguez, Idoia Udabe, Pintto (maskota), Saioa Erro, Amaia Zumeta eta Ainara Arnaiz.

BORDATXO
EDARITEGIA
PINTXO BEREZIAK
Aritzeta, 2 Tel.: 943 37 10 42

JOSE AIZPURUA UNANUE
Igeltseritza eta pintura
Teilatuen berritzea
Fatxaden konponketa
Pintore kalea, 1 - 3.A
LASARTE-ORIA
Tel.: 36 17 83
Muna Lurra, 20 - 1.B
USURBIL
Tel.: 943 36 37 67
Zorionak guztioi!

Zer diyo?

Amancioren agurra



Eusebio Aizpurua

❑ Aizpurua autobusetako gidaria.

❑ Amancioren laguna

Amancio Mancebo de la Gala Aizpurua Autobusetako txoferrik ezagunena eta maitagarriena dugu. 23 urte eman ditu gidari lanean, eta azkenik iritsi zaio erretiroa hartzeko garaia.

Amancio Otero de Guardan jaioa da, baino honek ez du esan nahi Euskal Herria maite ez duenik. Bere lanbideak txirrikitu txikienak ere ezagutzeko aukera paregabea eman dio gidari bezala pasa dituen urte guzti hauetan. Antonio Aizpurua zenak eta berak "refineria" batean ezagutu zuten elkar, eta orduz geroztik autobus gainean dabil handik hona (1965.urtetik). Bere lehen autobusa DOGGE bat izan zen. Azken urte hauetan, berriz, PEGASO batekin ibili da izena "treintazazpi" zuena. Hala ere, tartean izan dira hainbat eta hainbat autobus.

Pentsatze hutsak ikara ematen du. Hasieran aita eta bera hasi ziren eta orain, berriz, hogeita bederatzi txofer gaude, anai-arreba guztiak kontutan hartuz. Bera oso alaia eta atsegina da, eta horrek lagun asko bereganatzeko ateak ireki dizkio. Hala ere, oso une txarrak pasa ditu, izan ere, zenbait lagun oso egoera txarrean galdu baititu.

Herrian arrazoi asko medio, oso ezaguna egin da. Umeek bere esaldiekin, Amancio tío bueno esaterako, maitasuna adierazten diote. Lan ondorengo txikiteoak ere zerikusia izan du, beti izan baita hamaiketako zalea (Guardia zibilak edo sardin zaharrak jatea oso gustoko ditu). Bere abesteko zaletasunak txokorik tristeenak ere alaitzeko balio izan du askotan. Oso gustoko du "soy minero" abestia. Berarekin soldaduska egin zuen Antonio Molinarena hain zuzen ere.

Lerro kopuru haundia beharko nuke elkarrekin igaro ditugun une eta anekdota guztiak kontatu beharko banitu. Hori bai, beti saltsa guztietako perrexila izan da. Pare bat kontatuko dizkizuet, baina bertan egon behar zenuten!

Usurbila etorri aurretik autobusak tailer batera eramaten ziren konpontzera. Bertako gizonari Tío Paco deitzen genion, denon arteko harremana oso estua zelako. Anekdota honetan tío Paco eta Amancio dira protagonistak. Autobus gaina brotxaz margotu behar zenez, Tío Pacok gora igo ahal izateko eskailera bat erabili zuen. Baina eskailera erori egin zitzaion eta esku bakarrez baliatu behar izan zuen lurrera ez erortzeko. Amanciok orduan zera esan zion, "eutsi zak motel" eta tío Pacok honela erantzun zion, "zeri nahi diok eustea brotxako ileei edo...".

Beste hau ere barregarria izan zen. Donostia-Arano buelta eman zuen isokarro batekin bere txupa eta abiazio kasko eta guzti. Buelta guztia kez gainezka utzi zuen sute galanta egongo balitz bezala. Eskerrak ekologisten konzentraziorik ez zegoen orduan, bestela...

Amanciori buruz gauza asko aipatu daitezke, baina ulertu behar da bere urteak ere egin dituela etxean. Honen bestez 1998ko Abenduan iritxi zaio deskantsatzeko ordua, bai ondo merezia ere! Baina jakin badakigu handik edo hemendik bilatuko duela zerbait egiteko. Agur bero bat eskeintzen diogu senidetzat daukagun Amanciori. Honekin batera zorionak eta urte berri bat opa dizugu denok.

Olentzero eta jaiotza batera lehen aldiz

Abenduaren 24an gabon egunaren bezpera da. Azken urteetako ohiturari jarraituz, parrokiko taldearen Jaiotzak eta Gestoraren Olentzerok herriko txoko ugari pasako dituzte kantu kantari. Aurten ordea, bada berrikuntza bat: giza eskubideak aldarrikatu eta euskal presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatuz, biak frontoian elkartu eta ekitaldi berezi bat egingo da.

Gabon arratsaldea desberdina izango da aurten. Bai Jaiotza eta bai Olentzero bakoitza bere bidetik joango dira, abestiak ere ez dira berdinak izango, baina helmuga berdina izango dute: frontoia.

Talde bat iritsi eta bestea han badago haiek noiz joan zain egon beharko al dute azken urteetan bezala?

Gure Artera bilguneak "Presoak Euskal Herrira" zapiak salgai jarri zituen pasa den abenduaren 20an. Gabonetan, euskal presoak Euskal Herrira eskatuz Usurbilgo etxeetako balkoietan ahalik eta zapi gehien jartzea da beren helburua. Horrez gain, presoei idazteko postalak ere badituzte

Aurten ez. Biak errotondan bildu eta batera frontoira joango dira ekitaldi berezi eta berri batean. Giza eskubideak aldarrikatzea da guzti honen helburua eta honen barnean euskal presoak Euskal Herriratzea eskatzen da.

Frontoian elkartzean "olentzero joan zaigu" abestuko dute denen artean, segidan, Gure Artera bilguneko kide batek giza eskubideen defentsan testu bat irakurtzeko. Ondoren bakoitzak bere aldetik abesti bat kantatzeko [illegible]era izango du eta "Hator [illegible] etxera" kantatuz amaituko dute gabon gau berezi hau.

Alderdi guztien onespena duen manifestazioa

Abenduaren 31an manifestazio ixila egingo da herriko kaleetan. "Gabonetarako euskal presoak Euskal Herrira" lemapean kanpainarekin aspalditik dabiltza Senideakeko kideak, baina ekimen hau ez da besteak bezalakoa izango.

Aurrekoetan ez bezala, manifestazio honek udalean dauden hiru alderdien onespena izango du. Pasa den azaroaren 24an egin zen plenoan H.Bko zazpi ordezkariek, EAJko eta EAko biek eta Izaskun Maiz independienteak Senideakek aurkeztutako mozioa onartu zuten. Bertan, euskal presoek zigorra Euskal Herriko espetxeetan betetzeko duten eskubidea eta zigorraren 3/4-ak beteak dituzten euskal presoek baldintzapeko askatasuna izatea eskatzen zen.

Manifestazio ixil hau arratsaldeko 18.30etan hasiko da eta herriko presoen senitartekoak herriko talde askoren elkartasuna izango dute. Herriko kaleetan ahalik eta karraxi isil ozenena entzutea da Senideakekoen nahia.

Aburuza C.B. - ADG diseinu grafikoa - Agerialde herri ikastetxea - Aginaga etxebizitzak - Aginaga sagardotegia - Agirresarobe, Maite - Agirrezabal estankoa - Aitzaga K.E. - Aitzaga taberna - Aizpurua okindegia - Aizpurua Unanue, Jose (igeltseritza) - Alamandegi jatetxea - Aldamu oinetako konponketak - Aldatz kiroldenda- Alkartasuna kooperatiba - Alkorta harategia- Alual aluminioak- Ana janaridenda - Andatza karrozeria - Andoni pinturak - Andres Bruño e hijos S.L. - Angulas Mayoz S.L. - Añorga mertzeria - Antxeta taberna - Araeta sagardotegia - Aranburu landareak - Aranzazistroki, Andres (igeltseritza) - Argilan elektrotresnak- Arrate taberna - Arratzain sagardotegia - Arregi erlojuak - Arruti ardoak - Arruti harategia - Atxega arrain eta mariskoak - Aulki - Bar Usurbil - Baratza frutadenda - Baymue elektrotresnak - Benta taberna - Bereziartua zurgindegia - Bixen ileapaindegia - Bordatxo edaritegia - Bugati zalditegia - Caja postal - Coisa-Isasa - Donostiako Udala - EGA auto konponketak - Egioleta sagardotegia - Eiza denda - Ekaitz argazki denda - Elduaien hizkuntz eskola - Elexpe ileapaindegia - Elexpe, JoseLluis - Elorza Lizaso, Jose Antonio (eskaiola) - Errazkin C.B. (igeltseritza) - Errekondo zerrategia - Errota altzarien berritzea - Esn[illegible]eria - Etxebeste taberna- Euskadiko Kutxa - Ezker Batua - Fernando pinturak- Funeraria Gonzalez - [illegible]garraioak - Garai bat musika banda - Gipuzkoa Donostia Kutxa - Gonsabi S.L. (aroztegia) - G[illegible]rna [illegible] sagardotegia- Ikuska bideodenda- Ikutza aroztegia - Illunbe sagardotegia - Mendigain inmobiliaria [illegible] serigrafia - Irrati taberna - Iruin sagardotegia - Izagirre Ibargoien, Mikel (elektrizitatea) - J.R. Ibargoien [illegible]gintza [illegible]aterola e hijos S.A. - Juantxo burdindegia - Kalezarra karrozeria - Kima masaje lekua- Kin[illegible]ia [illegible] - Labe-txiki opil-okindegia -Lakalndela- Lanbide eskola - Larrañaga plastikoak - Lasarte-Ori[illegible] Bat[illegible]ua - Lataillade iturgintza - Laurok liburu denda - Lizardi liburudenda - Lourdes kirolak - Lur[illegible] frut[illegible] Mahuka arropa denda - Manpelç Manso aroztegia - Mapfre aseguruak - Mari janari-denda [illegible] Mujika - M[illegible]kindegia-gozotegia / Rich - May-Kar jatetxea - Mikel arrandegia - Mur errotulazioak- [illegible] legia - Noriega Diez, Eugenio - Oiardo kiroldegia- Olasagasti zurgintza - Olkar inprimategia- Optika Usurbil - Orb[illegible]rgintza - Orbeldi aseguruak- Orkoi oinetakoak - Osakidetza - Ostape iturgintza- Passport [illegible]unt[illegible]ia - Patri jatetxea - Pauma haur jantziak - Pello arraindegia- Pikabea agentzia - Portularrume itu[illegible]za [illegible]amo[illegible]arategia - Roiz, Pedro (iturgintza) - Sagasti taberna - Saioa ileapaindegia - Saizar sagardot[illegible] Sal[illegible]i jat[illegible]a - Seguros Bilbao - Sekaña erretegia - Setabu tailerrak- Telesforo ardoak - Tragoxka jatetxe[illegible] - Txapartegi harategia (Aginaga) - Txapartegi harategia (Kaleberri) - Txaro ileapaindegia [illegible]xik[illegible]di [illegible] Txiriboga taberna- Txitxardin beltxa jatetxea - Txurrut taberna - Udarregi ikastola - Ugarte erreteg[illegible] daira sag[illegible]otegia - Urtinea elkartea - Usurbil autoak - Usurbil autoeskola - Usurbilgo EAJ/PNV- [illegible]urb[illegible] Alkartasuna- Usurbilgo Herri Batasuna - Usurbilgo Hortz Klinika - Usurbilgo Udala - [illegible]bier e[illegible] [illegible]bala Loyarte, Jose Mari (igeltseritza) - Zabala-anaiak janari[illegible] Zabalea nekazal turismoa - [illegible]a-en[illegible]erna - Zubeldia kirolak- Zumeta jatetxea - Aburuza C.B. - ADG [illegible]ein[illegible]rafikoa - Agerialde herri i[illegible]etxe[illegible] - Aginaga etxebizitzak - Aginaga sagardotgia - Agirresarobe, Maite - Agi[illegible]zaba[illegible]estankoa - Aitzaga K.E. - Ait[illegible] taberna - Aizpurua okindegia - Aizpurua Unanue, Jose (ig[illegible]seri[illegible] [illegible]gi jatetxea - Aldamu oinetako konponketak - Aldatz kiroldenda- Alkartasuna kooperatiba - [illegible]ara[illegible]ia- A[illegible]l aluminioak- Ana janaridenda - Andatza karrozeria - Andoni pinturak - Andres Bruño e hijos [illegible]z S.L. - Añorga mertzeria - Antxeta taberna - Araeta sagardotegia - Aranburu landareak - Ar[illegible]ist[illegible]i, A[illegible]es (igeltseritza) - Argilan elektrotresnak- Arrate taberna - Arratzain sagardotegia - Arregi erlojua[illegible] - [illegible]ruti [illegible]ak - Arruti harategia - Atxega arrain eta mariskoak - Aulki - Bar Usurbil - Baratza frutadenda - Bay[illegible]e e[illegible]esnak - Benta taberna - Bereziartua zurgindegia - Bixen ileapaindegia - Bordatxo edaritegi[illegible] B[illegible]ti z[illegible]te[illegible] - Caja postal - Coisa-Isasa - Donostiako Udala - EGA auto konponketak - Egioleta sagard[illegible] Fiz[illegible] Ekaitz argazki denda - Elduaien hizkuntz eskola - Elexpe ileapaindegia - Elexpe, Jose Luis - El[illegible] Liza[illegible] Jose Antonio (eskaiola) - Errazkin C.B. (igeltseritza) - Errekondo zerrategia - Errota altzarien berritzea - E[illegible]eria - Etxebeste taberna- Euskadiko Kutxa - Ezker Batua - Fernando pinturak- Funeraria Gonzalez - Galarraga [illegible]ioak - Garai bat musika banda - Gipuzkoa Donostia Kutxa - Gonsabi S.L. (aroztegia) - Gorriti taberna - Iguarte sagardotegia- Ikuska bideodenda- Ikutza aroztegia - Illunbe sagardotegia - Mendigain inmobiliaria - Iosu serigrafia - Irrati taberna - Iruin sagardotegia - Izagirre Ibargoien, Mikel (elektrizitatea) - J.R. Ibargoien zurgintza - Juan Materola e hijos S.A. - Juantxo burdindegia - Kalezarra karrozeria - Kima masaje lekua- Kinkildegia - Kukubiltxo - Labe-txiki opil-okindegia - Lakandela- Lanbide eskola - Larrañaga plastikoak - Lasarte-Oriako Batxiler institutua - Lataillade iturgintza - Laurok liburu denda - Lizardi liburudenda - Lourdes kirolak - Lurdes frutak - Mahuka arropa denda - Manpel- Manso aroztegia - Mapfre aseguruak - Mari janari-denda- Martin Mujika - Mary okindegia-gozotegia / Rich - May-Kar jatetxea - Mikel arrandegia - Mur errotulazioak- N-I ileapaindegia - Noriega Diez, Eugenio - Oiardo kiroldegia- Olasagasti zurgintza - Olkar inprimategia- Optika Usurbil - Orbegozo iturgintza - Orbeldi aseguruak- Orkoi oinetakoak - Osakidetza - Ostape iturgintza- Passport hizkuntz akademia - Patri jatetxea - Pauma haur jantziak - Pello arraindegia- Pikabea agentzia - Portularrume iturgintza - Ramon harategia - Roiz, Pedro (iturgintza) - Sagasti taberna - Saioa ileapaindegia - Saizar sagardotegia - Saltxipi jatetxea - Seguros Bilbao - Sekaña erretegia - Telesforo ardoak - Tragoxka jatetxea- Truke jantziak - Txapartegi harategia (Aginaga) - Txapartegi harategia (Kaleberri) - Txaro ileapaindegia - Txikierdi karrozeria- Txiriboga taberna- Txitxardin beltxa jatetxea - Txurrut taberna - Udarregi ikastola - Ugarte erretegia - Urdaira sagardotegia - Urtinea elkartea - Usurbil autoak - Usurbil autoeskola - Usurbilgo EAJ/PNV- Usurbilgo Eusko Alkartasuna- Usurbilgo Herri Batasuna - Usurbilgo Hortz Klinika - Usurbilgo Udala - Xabier edaritegia - Zabala Loyarte, Jose Mari (igeltseritza) - Zabala-anaiak janaridenda - Zabalea nekazal turismoa - Zendoia-enea taberna - Zubeldia kirolak- Zumeta jatetxea

Eskerrik asko guztioi!

Majerako kondarrak

Bota bertsoa

"Bai euskarari"

Bada oraindik agortzen ez den
euskaldunon iturria,
egun hizkuntzik zaharrena baina
garai batean berria,
gure arbasoak sortutako
ez inondik ekarria,
gure hizkuntza izan dadila
tresna erabilgarria,
Euskal Herria euskara gabe
ez baita Euskal Herria

Gure hizkuntza jaio da nonbait
kolpe asko jasateko,
denon laguntzaz gai izango da
erasoa bueltatzeko,
hipokrisia gehiegi dago
guztia zuzen joateko,
hitz egitea ez da nahikoa
euskalduna izateko
elkar gaitezen Euskal Herria
zeharo euskalduntzeko.

Euskal Herriko mila lantoki
enpresari ta enpresen,
euskarakiko epelkeria
salatu dezagun ozen,
administrari arloa guztiz
euskalduntzera goazen,
beldurrik gabe denen aurrean
mintzatu tinko ta zuzen,
lotsak utzita gure hizkuntzaz
harro sentitu gaitezen.

Herri guztitan eratu dira
hainbat batzorde ta talde,
gure hizkuntzak ez baitu izango
etorkizunik gu gabe,
hogeitaseian Anoetara
joan beharrean gaude,
ta lan ordu bat eman dezagun
akordioaren alde,
izan gaitezen gu euskararen
eta bera gure jabe

Doinua: "Mutil koxkor bat"
Egilea: Bota Punttubako kumeak

Lehiaketa

Eguberriekin batera ***Noaua!*ko bazkide direnen eta publizitatea egiten dutenen artean gure zozketa mundiala** egiteko garaia iritsi da. Hirugarren urtez herriko produktuez osatutako hiru xexto zozketatuko ditugu, bat publizitatea egiten dutenen artean eta 2 bazkideen artean.

Xexto bakoitzean produktu hauek daude: **Saizarko sagardoa eta Belmont sagardoz-a, Kandido ardoa, Markel Olaizolaren etxeko patxarana, Joxe Mari Arrutiren txorizoak, Galardiko babarrunak, Joxe Mari Alduntzinen eztia, Juan Joxe Arrospideren onttoak, Aitzagako txanpaina, Andres Bruño e hijos-en mariskoa, Usurmin piperrak eta Angulas Aginaga gula**.

Bazkideok zuen zenbakiarekin eta publizitatea egiten duzuenok banatu zaizuen zenbakiarekin parte hartuko duzue zozketan. **1999ko urtarrilaren 4an** egingo da zozketa. Saridunen izenak urteko lehenengo ***Noaua!*n** argitaratuko dira.

A. BRUÑO e HIJOS. S.L.

500 gr.ko mixera bat
1 kg.ko zentoilo bat
1 kg.ko txangurro bat
4 nekora
12 langostino
200 gr.ko kamaroi gorria
500 gr.ko karrakela
Ardo txuri botila bat

Bandeja 7.000 pezeta

Tel. 943 37 27 88



Zorionak eta urte berri on!

MAPFRE
ASEGURUAK
Ana Olasagasti
Tlf. 943 36 00 83

AÑORGA

Mertzeria
Usaindegia
Drogeria

Zorionak

Jantzietan
Konponketak
egiten dira

Kale Nagusia 15
tlf.: 943 36 42 66

Agenda

ABENDUAK 24 osteguna

- **Parrokiak eta katekistek antolatuta, jaiotza** aterako da urtero bezala auzoz-auzo gabon kantak abesten. Parroki-etxearen aurrean, arratsaldeko 16.00ak aldera.
- **Usurbilgo Amnistiaren Aldeko batzordeak antolatuta, preso-en aldeko olentzeroa** aterako da arratsaldeko 16.00etan frontoitik.

ABENDUAK 26 larunbata

- **San Esteban txiki eguna.** 10.30ak aldera meza nagusia ospatuko da eta ondoren pintxoak banatu. Ondoren, herriko bertsolariak antzuteko aukera ere izango dugu

ABENDUAK 28 astelehena

- **Euskal Herria askatu!**-ren konzentrazioa arratsaldeko 20.00etan errotondan.
- Sagardoaren eguneko lagunek **barrikotea** antolatu dute urtero bezala. Sagardoaz gain sardina zarra eta gaztainak jan ahal izango dira.

ABENDUAK 29 asteartea

- Urtarrilaren 6an **errege kabalgatan parte hartu nahi dutenentzat deia**. Egun honetan Ziortzako geletan bilera egingo da arratsaldeko 19.30etan.

ABENDUAK 30 asteazkena

- **Gestorak antolatuta, Gudari hilei omenaldia** egingo zaie arratsaldeko 19.30etan.

ABENDUAK 31 osteguna

- Senideakek deituta eta udaleko alderdi politiko guztien onespenarekin **"Gabonetarako euskal preso-ak Euskal Herrira" manifestazio ixila** egingo da arratsaldean.
- **Urte zaharrari agur esan eta 1998.a umore eta alaitasunez hasteko,** dantzaldia frontoian. Ondoren, **distotekan** dantza egiteko aukera izango dugu.

URTARRILAK 5 asteartea

- Laguntzaileak eta zuzi-eramaleak lagunduta, beste urte batez ere ekialdetik etorriko dira **Meltxor, Gaspar eta Baltazar erregeak.** Frontoira 19.00 edo 19.30ak aldera azalduko direla uste da; hala ere, badakigu goxoki asko ekarriko dituztela.

URTARRILAK 11 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!-ren konzentrazioa errotondan.** Arratsaldeko 20.00etan.

LANPOSTUAK

✓ **Etxeko lanak egiteko eta bi neskato zaintzeko,** kotxea duen **neska euskaldun bat behar da**. Ordutegia: astegunetan 8.30etatik 20.30etara eta larunbatetan 8.30etatik 14.00etara. Deitu 943 361195 telefonora (Mª Jesus) edo 929 458918 telefonora (Mikel).

✓ **Neska edo emakume euskaldun bat behar da** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Arratsaldez deitu 366397 telefonora.

OHARRAK

✓ Pisu bat alokatu nahi nuke Kaleberrin. Deitu 943- 555072 telefonora.

ANTZERKI TAILERRA

Guraso eskolak, udalaren laguntzarekin antzerki tailerra antolatu du. Tailerra urtarriletik ekainera bitartekoa izango da, eta 18 urtetik gorakoentzat.

Izen ematea: urtarrilak 8, ostirala 17.00etatik 19.00etara Udarregi zaharrean

DROGOMENPEKOTASUNARI BURUZKO HITZALDIAK

Guraso eskolak, Usurbilgo udalaren laguntzaz 12-20 urte bitarteko seme-alabak dituzten gurasoei zuzenduta-ko "Familian harremanak nola bideratu: seme-alabei nola lagundu elkar ulertzen" izenburupean hitzaldi batzuk antolatu ditu.

Hitzaldi egunak: urtarrilaren 11, 18 eta 25a.
Ordua: arratsaldeko 17.00etatik 19.00etara.
Hizkuntza: Euskeraz eta erdaraz (2 talde)

Izen emateko udaletxera deitu 371951 telefonora eta Idoia Aizpuruagatik galdetu



A.BRUÑO e HIJOS S.L.

Gabonetan zure mahaia ongi hornitu nahi baduzu...
Menu ezberdinetako aurrekontuak egiten ditugu

Tel.: 943 37 27 88 edo 943 36 11 26

LURDES
FRUTAK
Eguberri eta urte berri on!
Bizkarre, 3
Usurbil
☎ 943 37 23 68

ZAITZAGA
TABERNA
Urte berri on!
Irazu kalea, 12
Tlf: 943 36 02 17

RAMON HARATEGIA
Eguberri eta urte berri jai zoriontsuak opa dizkizuegu!
Eguzkitza, 6 ☎ 943 36 29 70

SALTXIPI
JATETXEA
Eguberri eta urte berri on1
Txokoalde, z/g - Usurbil Tlf. 36 11 27 - 37 10 94

Eguberri eta urte berri on!
Elexpe
SOLARIUN
bono bereziak
ileapaindegia
Olarrondo kalea, 1 20170 USURBIL TLF 943 37 04

ELDUAIEN hizkuntz eskola

Zorionak eta urte berri on guztioi!

THE ARCH OF EUROPE GOLD STAR AWARD FOR QUALITY

LIDER DEL BUEN SERVICIO 1996

30 YEARS OF EXCELLENCE 30 Years

E-mail: elduaien infomail.es
Telf.: 943 37 14 02
Zubiaurrenea 6, behea
Usurbil

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

Usurbil Autoak, S.C.L.
Zerbitzu ofiziala



Zumartegi industrialdea
Aitzezarra kalea, 1

Telf.: 943 36 10 79